



Fitxa teknikoa

Osaba Elefante. Arnold Lobel. Itzulpena Manu Lopez Gaseni. Pamiela- Kalandraka. 2011

Liburuaren aurkezpena

Denok izan beharko genuke Osaba Elefante bat: gurasoen lekua hartu eta haiek ez daudenean gu zainduko gaituena, kontsolamendua emanez irribarre bat sortuko diguna une latzetan, bakardadea sentitzen dugunean.

Gurasoen desagerpena, haien heriotza, haurren fantasien artean kokatu behar da. Gure fantasian ere guraso-ordekoak aukeratzen ditugu, asko eta askotan; batez ere gurasoen iritziak edota erabakiak gure gustukoak ez direnean. “Nola biziko nintzateke gurasorik gabe?”. Hor datoz “Osaba Elefante” aukerakoak, gurasoen lekua hartu eta babes eta maitasuna; lasaitasuna eta bizipoza eskainiko dizkigutenak. Fantasia bukatzen denean, gurasoak bere tokian daude, baina “Osaba Elefante”k ere gurekin dihardu beti, behar den babes eta maitasun “estra” hori emanez.

Nola kontatu

Liburuaren testu erraza aproposa egiten da ozen irakurtzeko, hitzez hitz.

Ilustrazioak agerian daudela irakurriko dira, koloreak eta aire “retroak” fantasia eta oihartzun onirikoak ekartzen dizkigute.

Proposamenak bideratzen

- Ba al duzu “Osaba Elefanteren” bat?
- Gutun bat idatz egiozu: guraso-ordezkoa izenda ezazu; zergatik aukeratzen duzun azaldu, zer egitea nahiko zenuke harekin...